

«Istorio bat ez da unibertsala erroak ondo tinkatuta ez baditu»

 Mikel Soto



**Has gaitezen hasieratik... Nondik sortu zen istorio hau?**

Dejabu panpin laborategian beti saiatzen gara gertukoak zaizkigun istorioak hautatzen. Gure bizipenetatik gertu dauden istorioak fikziora eramaten. Antzezlanara sortu aurretik hirutan egon ginen Bosnian 2002tik 2005era, Gorazde herrian bereziki, sos Balcanes elkarteak gonbidatuta. Esperientzia ederra eta gogorra izan zen neurri berean. Gazte xamarrak ginen eta genozidio baten ondorioak azalean sentitzeko aukera izan genuen. Asko markatu gintuen han bizitakoak. Ondoren Londresen eman genituen urte batzuk, antzerkia ikasten, eta herrimina sentitu genuen lehenengoz nolabait. Ainararen aitona baserritarra han geundela hil zen... Orain konturatzen gara gertakari horien guztien ondorioz jai zela antzezlanara.

**Covek nije ptica, gizona ez da txoria bosnieraz... zergatik Bosnia?**

Aipatu bezala ikaragarri markatu gintuelako. Gure sentimenduak eta haserreak adierazteko beharra sentitu genuen. Bosniarrak ezagutzea opari bat izan da. Eskema asko apurrarazi zizkiguten: musulmanekiko genuen ikuspuntua, duintasun eta bizi-gogoaren indarra. Kulturalki alaia eta indartsua den herria da, bere identitatea mantentzen saiatzen dena. Oso gertukoak zaiz-

kigu. Omenaldi txiki bat egin nahi izan genien.

**Bistan da istorioak unibertsala izateko bokazioa duela, eta, hala ere, guztiz euskalduna da: diglosia, abiadura handiko trena egiteko desjabetzeak...**

Bai, istorio bat ez da unibertsala erroak ondo tinkatuta ez baditu. Guk garbi genuen ezin genuela Bosnian kokatu istorioa, zati txiki bat besterik ez baikenuen ezagutzen haietaz. Horregatik gure errealitatek begiratzea ezinbestekoa zitzaigun eta gure des-errotze horiek, gaur egun edo iraganean zein izan diren atzematea. Berehala agertu

## Maite Gurrutxaga Dejabu panpin laborategia NIDOS

Simón es un jubilado al que le han expropiado su casa para construir una línea del tren de alta velocidad que conoce a Selma, una joven enfermera bosnia que ha dejado atrás la guerra de los Balcanes. La inicial hostilidad de Simón y la incomprensión de Selma irán desapareciendo para dar paso a una hermosa amistad, en la que los planes del anciano llevarán a ambos al inesperado encuentro con su pasado y sus orígenes.

Esta es una historia sobre pájaros desterrados, un libro sobre aquellos que para poder volar necesitan retornar a sus raíces.


ziren ahtaren afera (oraindik ere pil-pilean dagoena), hizkuntza erre- alitatea, oraindik lur azpian gorde nahi duguten gerra...

**Zeinena izan zen komikia egiteko proposamena?**

Gurea. Sortzen dugun antzerkia iru- dietan eta mugimenduetan oinarritzen da. Horregatik paperean argitaratzeko ideia ez zitzaigun burutik ere pasa sekulan, nola? Baina Maiteren lana ezagutzen genuen lehenagotik, asko estimatzen genuen eta halaxe egun batean deitu genion antzezlanaren komikia egiteko ideia zer iruditzen zitzaion jakiteko. Gure harridurarako baietz esan zuen. Ondoren gainera berak moldatu du gidoia bere modura, komiki lengoaiara eta, beraz, guztiz inplikatu da. Gozada bat.

**Gurean guztiz arrakastatsuak diren bi genero batu dituzue; antzerkia eta komikia (barreak), aberats bihurtu nahian ala?**

Kar, kar... Tendentzia suizida izan dugu betidanik! Ez dugu merkatu parametroetan pentsatzen sekulan. Antzerkia egiten dugu gure pasioa eta adierazpidea delako, jakinda boleto guztiak ditugula ekonomiko- koki gorriak pasatzeko. Komikia, era berean, beti iruditu zaigu arte bat non oraindik ere esperimentazioa posible den, eta oraindik sorpresa itzelak aurki daitezkeen. Gora adierazpen minoritarioak!



En la página 32 orrialdean

Gainera inoiz ez gara bakarrik sentitzen, zorionez ameslariz eta jende ausartez beterik dago mundua: horra hor Maite eta zuen Txalapartakoen adibidea.

**Beno, egindako lana ikaragarria da... orain, zer?**

Irakurleekin konpartitzera! Egia da lan ikaragarria izan dela (atzera begiratuta bertigoa ematen du... jakin izan bagenu halako lana izango zela, ama!), baina benetan sinesten dugu lan honetan. Harro gaude euskarazko komiki bat sortzen lagundu dugulako. Espero dugu jendeak guk prozesuan adina gozatzea irakurketarekin.\*



**azaroa**

liburu gomendatua

## Maite Gurrutxaga, Dejabu panpin laborategia Habiak

Abiadura handiko trenaren lurretatik pasatzen dela-eta baserria galdu duen Simon zahararen eta, Balkanetako gerra atzean utzita, Euskal Herrira heldu den Selma erizain bosniararen arteko harremana da liburua-aren ardatza.

Maite Gurrutxagaren pintzelak bi protagonisten hasierako gaizkiulertuen eta hartu-eman gatazkatsuen testigu izango dira. Baina, zuhaitzetako sustraiek hirietako espaloiak zartzaten dituzten gisan, bien iraganek oraina pitzatuko dute, laguntasun istorio hunkigarri bati hasiera emanez.

Eskuartean duzuna desterratu-tako hegaztiei buruzko liburua da, hegan egin ahal izateko sustraietara bueltatu behar dutenen istorioa.



**0506038 TXALAPARTA**

**KOMIKIA**

128 or. 170 x 240 cm

Salneurria 18,00 €

**Bazkideak 14,40 €**

Aldaketa  
urriaren  
25a  
baino lehen

**EGILEAK**

**Dejabu panpin laborategia** Antzerki sortzailez osatutako konpainia oreretarra da Dejabu panpin laborategia. 2001ean Ainara Gurrutxagak eta Urko Redondok sortu zutenetik kolektiboki hainbat antzezlan sortu dituzte. *Azken portua* (2010), *Artedrama* eta *LPTPekin elkarlanean sortutako Errautsak* (2010) eta *Gure bide galduak* (2011) antzezlanak heldu ziren ondoren. Azken bi hauek Donostia Antzerki Saria eskuratu zuten, 2011 eta 2012an, hurrenez-hurren.

**Maite Gurrutxaga Otamendi** (Amezketan, 1983) Arte Ederrak ikasi zituen Leioako EHU eta Bartzelonako UBn. Arte Ederrak ikasten ari zela ezagutu zuen ilustrazioaren mundua, eta ilustrazioa ikasi zuen Bartzelonako Escola De La Donna zentruan. Geroztik liburu ugari irudiztatu ditu.